


11.GAIA: MUSKULUAK : OROKORTASUNAK

AURKIBIDEA

1. MUSKULU-EHUNAREN FUNTZIOAK
2. MUSKULUAREN UZKURKETAREN OROKORTASUNAK
3. MUSKULU-EHUN MOTAK




1. MUSKULU-EHUNAREN FUNTZIOAK

Muskulu-ehunaren gaitasun nagusia **uzkurketa** da eta honen bidez hainbat funtzio betetzen ditu gure organismoan. Funtzio nagusia **mugimendua** eta **indarra** da, baita desplazamendua eta gauzak hartzea ere (muskulu eskeletikoarena). Horrez gain, organismoko fluidoan mugimendua (muskulu kardiakoak odola mugitu, muskulu lehunak digestio-boloa digestio-hoditik garraiatzea) betetzen dute. Gainera, beste hainbat prozesuetan parte hartzen du, hala nola komunikazioan (hitzezkoa eta keinuak), termogenesisian, gorputzaren euspenean...

2. MUSKULUAREN UZKURKETAREN OROKORTASUNAK

Esan bezala, funtzio guzti hauek burutzeko oinarria muskuluen uzkurketa da. Hau prozesu zelularra da, izan ere, muskuluen uzkurketa, muskulua osatzen duten zelulen uzkurduraren ondorioa da. Horrez gain, muskulu ehun bakoitzeko uzkurketa desberdina izango da. Kasu

gehienetan, uzkurketa emateko, muskulu-zelulak neurona baten bidez kitzikatuak izan behar dira. Muskulu kardiakoaren kasuan, aldiz, ez du neuronak eragindako kitzikamendurik behar, berak bere burua kitzika dezakeelako.




3. MUSKULU EHUN MOTAK (Muskuluaren funtzioaren arabera)

Muskulu ehun mota bakoitzaren ezaugarriak aurrerago emango ditugu banan-banan


1. GIHAR KARDIAKOA:

Funtzio nagusia, odola ponpatzea da eta izenak adierazten duen bezala bihotzean bakarrik aurki dezakegu. Nerbio sistema autonomoan eragin dezaketen mekanismo ezberdinak bihotz taupadak erregula ditzakete (adibidez, urduri sentitzen garenean, neurotransmisoreen bitartez bihotz taupaden abiadura azkartzen da). Bestalde, guk geuk buru ditzakegun teknika ezberdinek ere (meditazioa, erlaxazioa, arnasketaren kontrola...) bihotz taupaden erregulazioan eragina izan dezakete, betiere homeostasia orekan mantenduz. Honako hau, muskulu ildaskatuek osatuko dute.



2. GIHAR LEUNA:

Itxura leuna du. Orokorrean erraietan dago baina baita organismoko beste hainbat organotan ere (begietan argiaren sarrera erregulatzeko, larruazaleko ileetan...). Bestalde, orokorrean ez-borondatezko mugimenduak burutzen dituzte; hala ere, badaude muskulu leun bidezko



borondazteko mugimenduak bete ditzaketenak. Adibidez, esfinterra.

3. MUSKULU ESKELETIKOA:

Eskeletoarekin kontaktuan dagoen muskulua da. Funtzio nagusia, hezurak mugitzea izango litzateke. Orokorrean, borondatezko mugimenduak burutzen dituzte, hala ere, beste gihar eskeletiko batzuk borondatezkoak ez diren mugimenduak burutzeko gaitasuna dute, hala nola ekintza erreflexuetan parte hartzen dutenak. Itxura ildaskatua du, xingola (franja) itxurako egiturek osatzen baitute.

